



Arartekoaren 2017NI-2230-16 Ebazpena, 2017ko urriaren 23koa. Horren bidez, amaitu egin da hedabideetan argitaratutako albiste larriei lotuta egindako esku-hartzea. Albiste horiek Arabako Foru Aldundiko gizarte zerbitzuen tutoretza edo zaintzapeko zenbait adingaberi eragiten zien prostituzio jardueri buruzkoa da.

Aurrekariak

2016ko urrian komunikabideetan agertutako albiste larrien ondoren, Arabako Aldundiko haurtzaroko foru zerbitzuen tutoretza edo zaintzapeko zenbait adingaberi eragiten zien prostituzio jardueri dagokienez. Gazteak Sansoheta zentroko egoitza harreraren zeuden. Fiskaltzatik egindako ikerketei kalterik egin gabe, erakunde honek administrazioaren jarduna kontrolatzeko eskumena duenez, Arartekoak ofiziozko jarduera bat irekitzeko erabakia hartu zuen, gertakariak sakonki aztertzeko eta Arabako Foru Aldundiak egindako esku-hartzea baloratzeko asmoz.

Espediente horren testuinguruan honako jarduera hauek burutu dira:

- a) Foru arduradun nagusiekin bilera (Diputatu Orokorra eta Gizarte Zerbitzuetako Diputatua)
- b) Sailari informazio eskaria egin, gertakariak argitzeko abiarazi izan daitekeen barne ikerketari buruz eta adingabeak babesteko hartutako neurriei buruzko informazioa lortzeko, bai zuzenean inplikaturakoena baita foru zerbitzuak zaintzen dituen gainontzeko neska-mutilena ere.
- c) Sansoheta zentroa bisitatu eta zentroko arduradunekin elkarrizketa.
- d) Zentroko protokoloen analisia.
- e) Gasteizko Udaleko Udaltzaingoei informazioa eskatu salatutako lehenengo gertakarien gainean egindako ikerketari buruz.

Kudeaketa hauen ondorioz, Arartekoak gertakarien kronologiaren, salaketen eta Udaltzaingoaren, Ertzaintzaren eta Fiskaltzaren aurrean egindako jakinarazpenen, existitzen diren prokoloen eta aztertutako gertakariekin lotutako hezkuntza eragileen jardueren gaineko informazioa lortu zuen.

Gogoetak

1. Aurretiko gogoetak.

- 1.1. Pertsona helduek adingabeen aurka egindako abusuen kasu baten aurrean gaude, legeak ez baitu sexu harremanen onespina onartzen hauek heldu baten eta adingabe baten artean ematen direnean. Zigor Kodearen 188. artikulua, azken [aldaketan](#) honela dio:

"1. El que induzca, promueva, favorezca o facilite la prostitución de un menor de edad o una persona con discapacidad necesitada de



especial protección, o se lucre con ello, o explote de algún otro modo a un menor o a una persona con discapacidad para estos fines, será castigado con las penas de prisión de dos a cinco años y multa de doce a veinticuatro meses.

Si la víctima fuera menor de dieciséis años, se impondrá la pena de prisión de cuatro a ocho años y multa de doce a veinticuatro meses.

(...)

4. El que solicite, acepte u obtenga, a cambio de una remuneración o promesa, una relación sexual con una persona menor de edad o una persona con discapacidad necesitada de especial protección, será castigado con una pena de uno a cuatro años de prisión. Si el menor no hubiera cumplido dieciséis años de edad, se impondrá una pena de dos a seis años de prisión”.

Hedabide batzuek ez dute horrela azaldu gertakari hori, izan ere, gehienetan, inplikaturako adingabeak gaizkileak balira bezala aurkeztu dituzte, ez biktima bezala, babesik gabe dauden adingabeak direla ahaztuz, eta espezializatutako babes programa batean egotera eramaten dituen jarrerekin. Aldiz, erasotzaileek -“bezeroak” deitutakoek- izandako legearen arabera zigortu daitekeen jarrera, ez da nahikoa azpimarratu eta kasu batzuetan ezkutuan pasa da gainera.

- 1.2. Aztertu beharreko gaiari heltzean, legea urratzeagatik kondenaturako adingabeen sozio-hezkuntza baliabideak eta babesgabetasun egoeran dauden haur eta nerabeen egoitza baliabideak argi desberdindu behar dira. Lehenengo kasuan, epai judizial batek egindako delituari dagokion zigorra ezarri du, eta horrekin lotuta, hura betetzeko eskubide eta betebeharrak mugatuko zaizkie epaiak adierazitako denboran. Baliabide hauetan egindako esku-hartzeak, adingabeen zigor erantzukizuna erregulatzen duen [urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoaren](#) arabera, batez ere hezkuntza mailako izaera duenak, pertsona hauek zentrotik ateratzea galarazten dituzten edo horien mugimenduak mugatzen dituzten neurriak har ditzake.

Gizarte Zerbitzuek arreta emandako haur eta nerabeek aldiz, babesgabetasun egoeran dauden pertsonak dira, eta administrazioak beraien garapenerako baldintza onenak eskaini behar dizkie, arrazoi ezberdinengatik bermatu ez zaizkienak. Haur hauek ez dute eskubide mugarik, ez dute delitu edo faltarik egin eta beraz, leku batean edo beste batean egon aukeratu dezakete (eta erabakitzen dute), etxean egotea edo handik alde egitea erabakitzen duten bezala. Hezitzaileek eskura dituzten tresna, gurasoek bezala, hezkuntza eremukoak dira batez ere, eta nerabeen kasuan bereziki orientatzaileak eta persuasiboak. Baliabidean egotea ukatzen badu, ezin zaio adingabeari atea itxi, eta ihesen kudeaketa -teknikoki baimendu gabeko ez





egoteak- nerabeei arreta ematen dieten zentroek dituzten zailtasunetako bat dira.

Babesgabetasun egoeran dauden haur eta nerabeentzako zentroetan eskubideak eta askatasunak urratzea salatua izan da duela gutxi giza eskubideen aldeko erakundeetatik, eta legebiltzarrean ere eztabaidatu izan da, jarrera arazoak dituzten nerabeen zentroen erregulazioa haurren legediaren azken aldaketan jorratzera eramán duena, zehazki, [uztailaren 22ko 8/2015 Lege Organikoa](#). Egun, zentro tipologia hau da egoiliarren eskubide eta askatasunen mugaren bat onartzen duen bakarra da, modu ez-ohikoan, eta horregatik bertan egotea epaile batek baimendu eta kontrolatu behar du.

- 1.3. Babesgabetasun egoeran dauden haurren zerbitzuetako profesionalen baliabideen lana hezkuntza eremukoa da, batez ere. Lana garapeneko prozesu pertsonaletan eta haurren eta nerabeen autonomia pertsonaleko hazten doazen kotak onartzean laguntzea da (hezkuntza harreman terminoetan). Jakina denez, hezkuntza prozesuek denbora behar dute, lotura afektiboa ezartzea beharrezkoa da eta beti ez du garapen lineala. Hau ondo ikusten da nerabezaroan, bizi-etapa zalantzagarría eta askotan asalduzkoa.

Horrekin lotuta, erakunde honek baloratu nahi du gertakarietan inplikaturako neska-mutilak berak izan zirela, tutoretza baten segurtasun eta enpatia testuinguruan, hezitzaileei bizitzen ari ziren egoera kontatu zietenak.

2. Arabako Foru Aldundiaren Gizarte Zerbitzuen Sailaren jarduna.

Arartekoak xehetasunez eta sakon aztertu du foru Gizarte Zerbitzuetako Sailaren jardueraren gaineko informazio guztia, bai neska-mutilen erreferentziako zentroko profesionalen egindakoa baita zerbitzuetako arduradun ezberdinek edo Arabako Gizarte Ongizateko Foru Institutuaren Haurren eta Familia Arloak berak egindakoa ere. Ikerketa honi esker hauxe ezagutu du:

- Ikertutako gertakariak egin zituen adingabea martxoa amaieran sartu zen Sansohetan, semea eta ama banatzea aholkatu zuen senideen arteko gertakari baten ondorioz, egoera horrentzat neurri egokiena baloratzen zen bitartean. Adingabeak sartu eta bi egunera ihes egin zuen, zentroko hezitzaileekin gutxieneko harreman lotura ezartzeko aukera eman gabe. Apirilaren 7ra arte ihes eginda eta bere familiaren laguntzarekin egon zen, eta data horretan zentrorá itzuli zen bere amarekin batera. Denbora horretan, amak Gasteizko Udaltzaingoa salaketa aurkeztu zuen bere etxean mugikorra lapurtzen saiatzeagatik, eta bere semea kontaktu web orri batean iragarki bat jarri zuela susmatzen zuelako. Susmo hau Familia Esku-hartzeko Hezkuntza Programaren hezitzaileari jakinarazi zion, eta honek berehala jakinarazi zion Sansohetako taldeari eta Alorrari.





- Zentroko hezkuntza taldeak barne ikerketa abiarazi zuen zentroko nerabe taldearekin, eta horietako baten amak apirilean jakinarazitako susmoen bidez gehien inplikaturakoenekin, momentu horretara arte susmoak bakarrik zirenak baieztatu ahal izateko. Lan horren ondorio, hezkuntza testuinguruan egindakoa, urriko gertakarien salaketa oinarritzen duen testigantza da.
- Taldeak Ertzaintzari jakinarazi zion apirilean, dagoeneko jarrita zegoen adingabearen desagerpenaren salaketa zabalduz, amaren susmoak eta mugikorra lapurtzeagatik eta adingabea sexu edukiko web orri batean iragartzen ari zela eta Gasteizko Udaltzaingoan jarritako salaketa.

Udaltzaingoak jakinarazi du salaketa jarri ondoren Guardiako Epaitegiari etxe barruko ustezko lapurretatik eta ustezko adingabeen galarazteagatik atestaturak bidali zuela.

- Haur eta familia Sailak apirilean jakinarazi zion Fiskaltzari adingabearen amak Udaltzaingoan salatu zuela bere semearen blokeatu gabeko mugikorrean adingabea prostituzio jardura posibleetan zegoela adierazten zuten mezu eta kontaktuak zeudela.

Era berean, urrian eta zantzu sendoagoak zituztenean, Haur eta Familia Saileko arduradunek salaketa berria jarri zuten, berehala fiskaltzari jakinarazi zitzaiona.

- Sailak ikerketa egin zuen eta arau-hauslea adingabeekin harremana izateko aukera ematen zioten zerbitzu publikoak ematearen barruan egotea ezeztatu zuen. Pertsona honek ez zien haur edo nerabeei arreta eman foru zerbitzu edo programa baten barruan.
- Sailak ikerketaren garapenari buruzko informazioa eskatu zion Udaltzaingoiari, horixe baitzen egintzen salaketa jaso zuen lehenengo organismoa. Maiatzean, bilerak egin ziren eta telefono bidezko harremanak izan ziren, eta hilabete horren amaieran ondorioztatu zen ikerketan ezin izan zela datu eztaba daezinik lortu.
- Zentroko hezkuntza taldeak hezkuntza jarduerak egin zituen neska-mutil taldearekin, espediente honen oinarri diren jarrerari ekiteko eta beraientzat garrantzitsuak diren ikasketak sortzeko asmoz. Lan hau, hasieran biziagoa zena, zentroaren esku-hartze eta hezkuntza plan bezala jarraitzen du.
- Ertzaintzaren jardueraren markoan, batez ere 2016ko urriko salaketaren ondoren, sailak, erakunde bezala, eta bere profesional guztiek, nola ez, gertakariak argitzeko kolaboratu zuten. Puntu honetan adierazi behar da zalantzan jarritako zentroko ordenagailua borondatezko moduan entregatu





zuela Administrazioak, polizia ikerketan lagungarria izan zitekeelako. Edozelan ere, adierazi behar da salatutako jardunak Facebook eta Messenger bidez egiten zirela, eta horietan edozein gailurekin sar daitekeela (mugikorra, erabilera publikoko ordenagailua gizarte etxeetan, merkataritza zentroak, etab.). Gogoratu behar dugu lehenengo susmoa telefono mugikorreko mezuen bidez sortu zela, zentroko adin horretako neska-mutil guztiek duten gailua, eta normalean erabiltzeko aukera dutena.

KITek adingabeengan dituzten arriskuen gainean Arartekoak adierazpenak egin izan ditu (ikus ez-ohiko txostena [E-inklusioa eta herritarren parte hartzea IKTen bidez gizarte esferan eta esfera publikoan Euskadin](#)) eskaintzen dituzten aurrerapenak pertsonen garapenerako aukera bat bezala ikusten direlako, baita haur eta nerabeentzat ere, eta horien erabilerari lotutako arriskuak hezkuntzatik jorratu behar direla, horien erabilera arduratsua lortzeko.

- Urrian gertakari hauek Ertzaintzaren aurrean salatu zirenean, Sansohetako zentroan dauden neska-mutilen familiei gertatzen ari zena eta foru zerbitzuaren jardunaren berri eman zitzairen.
- Sailak hezitzaile bat adingabeekin lan egitetik banatu zuen ikertutako gertakarietan inplikaturik egon zitekeenaren zalantza sortu zenean.
- Sailak adingabeak publikoki agertetik babestu nahi izan zituen. Zentroan sartzeko ateko kartela kendu zuen (erakunde honek 2012an zentrorako egindako bisitan gomendatu zuen gauza bat) eta adingabeen identitatea gorde zuen.
- Azkenik, zentroan eta foru zerbitzuan egindako prozedura eta esku-hartzeak aztertu eta hobetzeko jarraipen mahai bat aktibatu zuen, kasu honetan jarraitutako prozedura aztertzeko eta dagozkion hobekuntzak egiteko.

Datu hauek guztiak aztertu ondoren, ondorioa da foru erakundeak ez zuela gaizki jardun. Izan ere, dagozkion polizi erakundeen aurrean salaketa jarri zuen eta Fiskaltzan jakinarazi zuen jakin izan zuen momentuan, bai apirilean baita urrian ere, bere zaintzapean zeuden adingabe batzuk delitu baten biktima izaten ari zirela, gertakariak argitzeko bere ardurako eremuetan ikertu zuen, neska-mutilak babesteko eta horiek ikasteko hezkuntza jarduerak aktibatu zituen, poliziarekin kolaboratu zuen, familiei berri eman zien eta biktimen identitatea gorde zuen.





Ondorioak

Azaldutako guztiagatik, Arartekoak ofiziozko esku-hartze hau amaitutzat joko du, Arabako Foru Aldundiak egindako jarduna desegokia izan ez dela egiaztatu ondoren.

